

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2010eko ekinaren 9an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**11.- TIC SISTEMA BAT ESKURATU, EZARRI ETA KUDEATZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

TIC sistema bat eskuratu, ezarri eta kudeatzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Fondo E-2010 lana sustatzeko kanpainan proiektu hau aurrera eramateko baimena jaso zan.

Bigarrena: 2010eko martiaren 31n izandako batzordean, Tokiko Gobernu Batzarra, pleguak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Hirugarrena: Proposamenak aurkezteko epean, 4 enpresen eskaintzak jaso ziran.

**Argudioak**

Lehenengoa: Kontratazino mahaiak, dokumentazino orokorra aztertu ostean, 4 enpresen kaudimena egiaztatutzat emon eban eta dokumentazino ekonomiko zein hobakuntzen dokumentazinoa zabaldu ondoren, Adituen Komitearen esku itzi eban, egokia zan balorazinoa egiteko.

Bigarrena: Behin Adituen Komiteak txostena jasota, Kontratazino Mahaiak, egokia zan proposamena onetsi eban.

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Kontratazino mahaiak egindako proposamenari jarraiki, TIC sistema bat eskuratu, ezarri eta kudeatzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea, era honetan:

ENPRESEA: HIRITZINET MEDIA, SL (IFZ: B95586947) eta OPINO-MEDIA, SL (IFZ: B98158298) UTE

PREZIOA: 135.655,21 euro (BEZa kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 21.704,83 €-koa da. Guztira, 157.360,04 €.

EXEKUZINO EPEA: 6 hilabete (hobakuntzak kontutan eduki barik).

KONTRATU HONETAN LAN EGINGO DABEN LANGILEAK: 3 langile.

BIGARRENA: Kontratuan jaso beharko dira enpresek aurkeztutako hobekuntza guztiak.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, jarraian adierazoten dan jarduketea egin beharko dauela:

- UTEa eskritura publikoan eratu.
- Behin betiko bermea jarri (6.682,76 €).

Horretarako hamar (10) laneguneko epea eukiko dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko ekainaren 10ean.

ONETSIA  
ALKATEA